Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko apirilaren 27a, osteguna — 80 — Jueves, a 27 de abril de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ASTIGARRAGAKO UDALA

*Iragarkia*

Jendaurrean jartzeko legezko epea igaro eta erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez, behin betiko bihurtu da «Astigarragan hileta edo omenaldi zibilak baimendu eta egiteko Ordenantza» onartzeari buruz, 2023ko otsailaren 28an egindako udal osoko bilkurak hartutako hasierazko erabakia.

Ondorioz, erregelamendu hori osorik argitaratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Astigarraga, 2023ko apirilaren 24a.—Xabier Urdangarin Lasa, alkatea. (2925)

*Astigarragan hileta edo omenaldi zibilak baimendu eta egiteko Ordenantza.*

ZIOEN AZALPENA

Estatu ez-konfesional eta laiko batean, erakundeek pertsonen eta elkarteen askatasun ideologiko eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna bermatu behar dutela gauza jakina da gizartean, eta horretarako muga bakarra legeak ezartzen duen ordena publikoa errespetatzeko beharra da. Bestalde, gure gizartean aniztasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturala da nagusi, gizarte plurala baita, eta ohituren eta ekintza sozialen adierazpenak etengabe ari dira aldatzen.

Hil ondorengo hileta edo omenaldi zibilak egiteko behar soziala erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik sortu da, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko.

Gure gizartean elkarren ondoan bizi diren erlijioek hildakoei agur esateko liturgia-ekitaldiak egiteko toki edo tenpluak dituzten bezala, Astigarragako Udalak gizartean gero eta eskaera handiagoa duen behar bati erantzun nahi dio.

Ordenantza honen helburua, beraz, Astigarragako gizarte zibila osatzen duten familiek, adiskideek, erakundeek edo taldeek beren hildakoak omentzeko edo horiei agurtzeko egin nahi dituzten ekitaldiak baimentzeko arauak ematea da, hala, pertsona horien ekarpenak edo balio etikoak edota gizatiarrak aitortzeko.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Ordenantza honen xedea da Astigarragako udalerrian hildakoei hileta ospakizun edo omenaldi zibilak egiteko baimena ematea eta udal lokal edo espazio publikoen erabilera arautzea.

## AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

*Anuncio*

Transcurrido el plazo legal de exposición pública sin que se haya presentado reclamación, ni observación alguna, se ha elevado a definitivo el acuerdo inicial adoptado en sesión plenaria celebrada el 28 de febrero de 2023, sobre la aprobación de la «Ordenanza para la autorización y celebración de funerales u homenajes civiles en Astigarraga».

En consecuencia, se procede a la publicación íntegra del citado Reglamento, conforme a lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Astigarraga, a 24 de abril de 2023.—El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa. (2925)

*Ordenanza para la autorización y celebración de funerales u homenajes civiles en Astigarraga.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Como es conocido por la sociedad en su conjunto, en un Estado aconfesional y laico, las instituciones deben garantizar la libertad ideológica, religiosa y de culto de las personas y comunidades sin más limitación que la necesaria para mantener el orden público de acuerdo con la ley. Asimismo, es conocida la diversidad ideológica, religiosa y cultural de nuestra sociedad, plural y en transformación constante en cuanto a la manifestación de sus costumbres y actos sociales.

La realización de funerales u homenajes civiles por fallecimiento nace de la necesidad social de ofrecer una ceremonia digna y personal a aquellas ciudadanas y ciudadanos que han escogido vivir sin la religión, de conformidad a cómo la persona difunta concebía la vida.

Así como las distintas religiones que conviven en nuestra sociedad tienen lugares o templos donde realizar sus actos litúrgicos de despedida a sus difuntos, el Ayuntamiento de Astigarraga quiere dar respuesta a una necesidad social cada día más demandada.

La presente ordenanza pretende, por tanto, regular la autorización y celebración que familiares, amistades, organizaciones y/o entidades que componen la sociedad civil de Astigarraga quieran realizar a sus difuntas como homenaje o despedida a su persona, reconocimiento a sus aportaciones comunitarias o valores éticos y/o humanos.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.º*

La presente ordenanza tiene por objeto la autorización para la realización de funerales u homenajes civiles por fallecimiento en el término municipal de Astigarraga y regular la utilización de los espacios y locales municipales:

EK\CV GAO-I-2023-02925

*2.artikulua.*

Alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak hileta edo omenaldi zibiletarako gordetako espazioak erabiltzea baimendu ahal izango du, betiere, senitartekoak edo dagokionak Astigarragako Udaleko erregistrora bidali beharreko agiriak jaso ondoren.

Baimena ukatzen bada, arrazoitu egin beharko da.

*3. artikulua.*

Hildakoei hileta ospakizun edo omenaldi zibilak egiteko ohiko toki izango dira honako udal lokal edo espazio publikoak:

— Barandiaran plaza.

— Emakumeon plaza.

— Txominenea pilotalekua.

— Kontxa Etxeberria plaza.

— Erribera Kulturguneko antzokia.

*4. artikulua.*

Hileta edo omenaldi zibilak astelehenetik igandera ospatuko dira.

*5. artikulua.*

Oro har, hiletak edo omenaldi zibilak egiteko ordutegia honako hau izango da:

— Goizez, 11:00etatik 13:00etara bitartean eta arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Tarte horretan hasi eta bukatu behar da ekitaldia. Hiletak ezingo du 90 minutu baino gehiago iraun.

*6. artikulua.*

Udalak, alkatetzaren Dekretu bidez, hildakoei hileta ospakizun edo omenaldi zibilak egiteko lekuak, egunak eta ordutegiak aldatu ahal izango ditu. Dekretua udalaren webgunean argitaratuko da.

II. TITULUA

ESPEDIENTE ADMINISTRATIBOA

I. KAPITULUA. PROZEDURA HASTEA

*7. artikulua.*

Eskaerak idatziz aurkeztu beharko dira, gutxienez 48 ordu baliodun lehenago.

Eskabideak alkatetzari zuzenduko zaizkio eta Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, aurrez aurre edo bitarteko telematikoen bidez, Astigarragako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez (http://astigarraga.eus/es/tramites), bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren lekuetan ere.

Inguruabarrengatik artikulu honetako baldintzak bete ezin badira, eskaerak beste bide batzuetatik egin ahal izango dira.

*8. artikulua.*

Egingo diren eskaeretan honako datu hauek adierazi beharko dira:

a) Ospakizuna egiteko baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa, eta, hala badagokio, bere ordezkariarena, bai eta jakinarazpenak jasotzeko aukeratutako bidea edo lekua ere. Eskaera interesdunaren ordezkari batek aurkezten badu, zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da, edo interesduna pertsonalki agertuz egindako

*Artículo 2.º*

El alcalde o alcaldesa, o concejal o concejala en quien delegue, podrá autorizar el uso de cualquiera de los espacios reservados para los funerales u homenajes civiles, previa recepción de la documentación que debe remitir la persona o familiar al registro municipal del Ayuntamiento de Astigarraga.

En el caso de denegación de autorización, ésta deberá estar motivada.

*Artículo 3.º*

Se establece como lugar ordinario de celebración de los funerales civiles u homenajes por fallecimiento los siguientes espacios y locales municipales:

— Plaza Barandiaran.

— Emakumeon plaza.

— Teatro de Erribera Kulturgunea.

— Plaza Kontxa Etxeberria.

— Frontón Txominenea.

*Artículo 4.º*

Los funerales u homenaje civil se celebrarán de lunes a domingo.

*Artículo 5.º*

Con carácter general el horario para la celebración de los funerales u homenajes civiles será el siguiente:

— Por la mañana, de 11:00 h a 13:00 h y por la tarde, de 18:00 h a 20:00 h. En ese periodo de tiempo deberá realizarse el acto. La duración del acto no podrá exceder de 90 minutos.

*Artículo 6.º*

El ayuntamiento –mediante Decreto de Alcaldía– podrá modificar los lugares, días y horarios para la celebración de de los funerales civiles u homenajes por fallecimiento. Decreto que se publicará en la página web municipal.

TÍTULO II

DEL EXPEDIENTE ADMINISTRATIVO

CAPÍTULO I. INICIO DEL PROCEDIMIENTO

*Artículo 7.º*

Como norma general las solicitudes deberán de presentarse por escrito con una antelación mínima de 48 hora hábiles.

Las mismas se dirigirán a Alcaldía y se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento, presencialmente o por medios telemáticos, a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Astigarraga, http://astigarraga.eus/es/tramites.; así como en los lugares a que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Si por razón de las circunstancias, no pueden cumplirse los requisitos de este artículo podrán realizarse la solicitudes por otras vías.

*Artículo 8.º*

Las solicitudes que se formulen deberán contener:

a) Nombre, apellidos, domicilio e identificación de la persona que solicita la autorización de la celebración,, y en su caso, de la persona que lo represente, así como la identificación del medio preferente o del lugar que se señale a efectos de notificaciones. En el caso de que la solicitud sea presentada por una representante de la interesada, tal circunstancia deberá acreditarse

EK\CV GAO-I-2023-02925

deklarazioaren bidez, eta ez da eskabiderik onartuko horrelakorik gabe.

Izapideak arintzeko, egokitzat jotzen da telefono-zenbaki bat edo helbide elektroniko bat ematea, baina informazio hori ez da nahitaezkoa.

b) Hildako pertsonaren izen-abizenak.

c) Hileta edo omenaldi zibila zein egunetan, zein ordutan eta zein lekutan egin nahi den.

d) Ekitaldiaren deskribapen laburra.

e) Ekitaldiaren gutxi gorabeherako iraupena.

f) Hileta edo omenaldi zibila egiteko erabili nahi den udal-materiala (Erribera kulturguneko pantaila, mikrofonoak, proiektorea...; edo kaleko espazioetarako megafonia, aulkiak, hesiak...).

g) Eskaera egin den lekua eta data.

h) Eskatzailearen sinadura edo haren borondatearen egiazkotasunaren egiaztagiria, edozein euskarritan.

*9. artikulua.*

Eskaerak aurreko artikuluak zehaztutako baldintzak betetzen ez baditu, interesdunari lehenbailehen eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko, ekitaldia baimendu aurretik.

*10. artikulua.*

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaeren izapideak egoera horrek eskatzen duen berehalakotasun printzipioaren arabera bideratuko dira, eta horretarako eskumena duen pertsonari igorriko zaizkio, ebazpena eman dezan.

Udalean erregistratutako eskaerari 24 ordu balioduneko epean erantzungo zaio. Epe horretan ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela ulertu behar da. Hala ere, udalak, epe hori igarota, ekitaldia egiteko baimena eman ahal izango du.

II. KAPITULUA. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA EGITEA

*11. artikulua.*

Hileta edo omenaldi zibila egiteko eguna eta ordua alkateak edo horren ordezko zinegotziak zehaztuko du, Zerbitzutako Sailak xede horrekin espedientea bideratu ondoren.

Instrukzioa eskaerak aurkeztu diren ordena zorrotzean egingo da.

Eskabideak aurkezteko hurrenkera ez da kontuan hartuko, baldin eta aparteko eta presazko inguruabar objektiboak gertatzen badira. Nolanahi ere, aparteko eta presazko beharrizana behar bezala arrazoitu beharko da, eta eskubidea aldatu zaienei entzun beharko zaie.

Bestalde, ahal den heinean, eskatzaile bakoitzak eskaeran zehaztutako eguna, ordua eta lekua errespetatuko dira.

*12. artikulua.*

Eskaera ikusita, eta ordenantza honetan jasotako baldintzak betetzen badira, alkateak, edo hark eskuordetutako zinegotziak, eskatutako lokala edo espazioa erabiltzeko baimena emango du, eskatutako egun eta orduan, eta, ezinezkoa bada –espazio hori okupatuta dagoelako–, zehaztuko du –ordenantza honetan jasotakoetatik– zein udal lokala edo espazioa erabil dezakeen hileta edo omenaldi zibila egiteko. Salbuespen gisa, ordenantza honetan jasota ez dauden beste udal-lokal edo -espazio batzuk erabiltzeko baimena eman ahal izango da.

por cualquier medio válido en derecho, o mediante declaración en comparecencia personal del interesado, no admitiéndose ninguna solicitud sin tal extremo.

A efectos de agilizar los trámites se considera oportuno facilitar un número de teléfono o una dirección de correo electrónico, si bien dicha información no es obligatoria.

b) Nombre y apellidos de la persona fallecida.

c) Día, hora y lugar de preferencia para la celebración del funeral u homenaje civil.

d) Breve descripción del acto.

e) Tiempo estimado de duración del acto.

f) Material municipal que se quiere utilizar para la celebración del funeral u homenaje civil (pantalla, micrófonos, proyector... de Erribera kulturgunea; o megafonía, sillas, vallas... para los espacios abiertos).

g) Lugar y fecha de la solicitud.

h) Firma del o la solicitante o acreditación de la autenticidad de su voluntad por cualquier medio.

*Artículo 9.º*

Si la solicitud no reúne los requisitos que señala el artículo anterior se requerirá a la interesada con la mayor urgencia posible para que con antelación a autorizar el acto, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos.

*Artículo 10.º*

La tramitación de las solicitudes para la realización de funerales u homenajes civiles se regirán por el principio de inmediatez que requieren las circunstancias, siendo remitidas a la persona competente para su resolución.

La solicitud registrada en el Ayuntamiento será contestada en el plazo de 24 horas hábiles. Si en ese plazo no se ha resuelto, la misma debe entenderse desestimada. No obstante, el Ayuntamiento podrá –trascurrido dicho plazo– autorizar la celebración del acto.

CAPÍTULO II. INSTRUCCIÓN DEL PROCEDIMIENTO

*Artículo 11.º*

La fecha y hora de celebración del funeral u homenaje civil será fijado por el alcalde o alcaldesa, o concejal o concejala en quien delegue, previo expediente instruido a tal efecto por el área de Servicios.

La instrucción se efectuará con estricta sujeción al orden de presentación de las solicitudes.

Podrá no atenderse al orden de presentación de las solicitudes siempre que se den circunstancias objetivas de extraordinaria y urgente necesidad. En todo caso, la extraordinaria y urgente necesidad deberá estar suficientemente motivada y deberá oírse a quienes han visto alterado su derecho.

Asimismo, en la medida de lo posible, se atenderá la preferencia de la solicitud en cuanto a fecha, hora y lugar.

*Artículo 12.º*

A la vista de la solicitud, y siempre que se cumplan las condiciones recogidas en la presente ordenanza, el alcalde o alcaldesa, o concejal o concejala en quien delegue, autorizará la utilización del local o espacio, el día y hora solicitado, y de no ser posible –por estar dicho espacio ocupado– determinará el local o espacio municipal –de los contemplados en la presente ordenanza– en el que puede celebrarse el funeral u homenaje civil. Con carácter extraordinario, se podrá autorizar la utilización de otros locales o espacios municipales diferentes a los contemplados en la presente ordenanza.

EK\CV GAO-I-2023-02925

III. TITULUA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

*13. artikulua.*

Udal lokalen eta espazioen zainketa egokia bermatzeko, zeremonian parte hartuko dutenek ez dute berorietan kalterik edo galerarik eragin dezakeen inolako ekintzarik egingo.

Horretarako, ekitaldia Erriberako Kulturguneko antzokian egiten bada, eta/edo udal materiala erabiltzea eskatzen bada, eskatzaileak, eskaerarekin batera, fidantza bat jarri beharko du, indarrean dagoen zerga-ordenantzetan ezartzen den zenbatekoaz. Fidantza hori ekitaldia egin eta 2. egun baliodunetik aurrera itzuliko da, espazioa entregatu den baldintza berberetan dagoela egiaztatu ondoren.

Baimenaren titularra, izango da egintza ospatzeari arrazoiaz, udal ondasunetan eragiten diren kalteen eta galeren arduraduna.

Era berean, baimenaren titularra izango da pertsonen duintasunaren aurkakoak izan daitekeen edozein ekintzaren edo iruzkinen erantzulea. Nolanahi ere, egintzaren edukia ezin izango da iraingarria izan, ezta beste pertsona batzuen ideia edo printzipioen aurkakoa ere.

Adierazitako udal espazioetan ezin izango da baimendutako edukiera baino pertsona gehiago sartu.

Lagatako ondoko espazioen eguneroko jarduera behar bezala garatzen dela bermatzeko, ekitaldira joaten direnek ez dute gogaikarriak gertatzen diren jarduerarik egingo.

*14. artikulua.*

Hildakoaren senitartekoek edo adiskideek udal lokal edo espazioa apaindu nahi badute edo modu bereziren batean egokitu nahi badute, aurrez eta nahikoa denboraz Udaleko arduradunari horren berri eman beharko diote, hartu beharreko erabakiak har ditzan. Baimena emanez gero, lekuaren harmonia eta ezaugarriak errespetatu beharko dituzte beti, eta sor daitezkeen gastuak beren gain hartu beharko dituzte.

Ekitaldia egiteko zerbitzu osagarriak interesdunaren kontura eta kargura izango dira, baina, betiere, Astigarragako Udalak ikuskatu ahal izango ditu.

Behin ekitaldia bukatu ondoren, erabilitako lokala edo espazioa lehen bezala utzi beharko da.

*15. artikulua.*

Ekitaldia Erribera kulturgunean egiten denean, instalazioa itxita dagoen ordutegiaren barruan, erabilera baimenean zehaztuko da ekitaldirako irekitzeko eta ixteko modua.

*16. artikulua.*

Eskatzaileek Erribera kulturgunea eta udal-materiala (aulkiak, hesiak...) erabiltzeko indarrean dagoen zerga-ordenantzan arautako tasak ordaindu beharko dituzte.

*17. artikulua.*

Ordenantza honetan aurreikusten ez den edozein alderditarako, udal arduradunen aginduak jarraitu beharko dira.

*Xedapen gehigarria.*

Astigarragako Udaleko alkatetzari ahalmena ematen zaio ordenantza hau aplikatzeko egin beharreko jarduketa guztiak egiteko.

*Azken xedapena.*

Ordenantza hau behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasi eta 15 egunera jarriko da indarrean, eta Udalbatzak berau aldatzeko edo indargabetzeko erabakia hartu arte izango da indarrean.

TÍTULO III

DERECHOS Y OBLIGACIONES

*Artículo 13.º*

A fin de garantizar la buena conservación, las personas asistentes a la ceremonia se abstendrán de realizar cualquier acto que pueda suponer deterioro o menoscabo de los locales o espacios municipales.

A estos efectos, en el supuesto de que el acto se celebre en el teatro de Erribera Kulturgunea, y/o se solicite la utilización de material municipal, la solicitante junto a la solicitud, deberá de depositar una fianza, por la cuantía que se establezca en las ordenanzas fiscales vigentes, que será devuelta a partir del 2.º día hábil tras la celebración del acto, una vez acreditado que el espacio se halla en las mismas condiciones en las que se entregó.

La titular de la autorización será responsable de los daños y perjuicios que se causen a los bienes municipales con motivo de la celebración del acto.

De igual manera, la titular de la autorización será responsable de cualquier acto o comentario que pueda suponer un atentado contra la dignidad de las personas. En todo caso, el contenido del acto no podrá ser ofensivo ni atentar contra las ideas o principios de otras personas.

En ningún caso, cabe el acceso en los espacios municipales indicados de mayor número de personas que el aforo permitido.

A fin de garantizar el normal desarrollo de la actividad diaria de los espacios colindantes al cedido, las asistentes a la ceremonia se abstendrán de realizar actividad alguna que resulte molesta.

*Artículo 14.º*

Cuando las y los familiares y/o amistades deseen decorar o acondicionar de forma especial el local o espacio municipal, deberán comunicarlo previamente y con la antelación suficiente al responsable del Ayuntamiento para que resuelva lo que proceda. En caso de que se autorice, deberán respetar siempre la armonía y características del lugar y siendo a su cargo los gastos que con este motivo se produzcan.

Los servicios complementarios para la celebración del acto, los aportará la persona interesada e irán a su cargo, sin perjuicio de que el Ayuntamiento de Astigarraga pueda supervisar los mismos.

Una vez terminado el acto, el local o espacio utilizado se deberá dejarse en las mismas condiciones.

*Artículo 15.º*

Cuando el acto se celebre en el teatro de Erribera kulturguneko antzokian, durante el horario de cierre de la instalación, en la autorización de uso se determinará la forma de apertura y cierre para la ceremonia.

*Artículo 16.º*

La solicitantes deberá de abonar las tasas previstas en la ordenanza fiscal vigente para la utilización de Erribera kulturgunea y del material municipal (sillas, vallas...).

*Artículo 17.º*

En todo lo no previsto en esta ordenanza, se deberán seguir las instrucciones de los responsables municipales.

*Disposición adicional.*

Se autoriza a la Alcaldía del Ayuntamiento de Astigarraga para la realización de las actuaciones necesarias en orden a la aplicación de la presente ordenanza.

*Disposición final.*

La presente Ordenanza entrará en vigor a los 15 días a contar desde el día siguiente al de la publicación del texto definitivo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el Pleno del Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2023-02925